

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



HERNANI KONTRAKANTXA

Jam session gaur, gaztetxean

Urteari musikarekin eman nahi diote hasiera Hernaniko Kontrakantxa Gaztetxean. Horrela, gaur, 22:15etan hasita, aurrena mikro ireki saioa eta ondoren, jam session saioa egingo dituzte. Taldeka nahiz bakarka, edozein intsumentu eta edozein hizkuntza eta mailatan jo daiteke. «Helburua gero eta jende gehiagok parte hartzea da», egin dute gonbidapena. ||

ASTIGARRAGA TXOTX IREKIERA

Olatz Arrieta kazetaria, txotx egiten aurrena

Urtarrilaren 16an egingo da Astigarragako txotx irekiera, eta Olatz Arrieta kazetari astigartarra izango da aurtengo sagardo berria probatzen aurrenekoa. Gartziategin egingo da gero, bazkaria.

SAGARDO Berriaren Eguna urtarrilaren 16an egingo da Astigarragan, Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, eta Olatz Arrieta berriemailea, astigartarra bera, izango da aurtengo sagardo berria dastatzen aurrenekoa.

Urtero bezala, 26garren edizio honetan ere, Sagardoetxean egingo da aurkezpen ekitaldia, eguerdiko 12:00etan, eta Arrietak sagarrondo landatuko du. Gero, txotx irekiera bera egingo da, 13:30etan; aurretan, Gartziategi sagardotegian.

Bazkari txartelak, zozketan

Txotxa irekita, urteko aurreneko menua dastatu ahal izango da, eta aurretan, herritarrek ere hartu ahal izango dute parte bertan, Sagardoetxean zozketatzen diren 5 sarrera bikoitzetako bat irabaziz gero. Zozketan parte hartzeko izena eman daiteke igandera arte Sagardoetxean: 943 550 575 edo info@sagardoarenlurraldea.eus. ||



Bruselatik jaloterrira bueltatuta, aurtengo sagardo berriaren berri emango du Olatz Arrieta kazetariak.

HERNANI ANTZERKIA

Sarrerarik ez, Go!azen ikusteko

Opor garaiko aisialdi programaren barruan, Go!azen 5.0 antzerki musikatua ikusi ahal izango da Biterin gaur, 16:00etan eta 18:00etan, baina bukatu dira sarrerak. ||

GOIZUETA ESKU PILOTA

Finalerdiak gaur, pilotari hernaniar eta goizuetarrek

Goizuetako Umore Ona pilota txapelketako azken finalerdiak jokatuko dira gaur frontoian, 17:00etan hasita. Bost partiduko jokatuko dira, eta horietako batean, elkarren kontra ariko dira Hernaniko Deskarga eta Alegria, Umore Onako Legarreta eta Elizegiren kontra, haurren mailan. ||

HERNANI ESKUBALOIA

Ate irekiak berriz, kiroldegian

Hernaniko Eskubaloi Elkarteak beste ate ireki saio bat antolatu du gaurko, 2007-2010 urte bitartean jaiotako neska-mutilei zuzenduta. Kiroldegiko 1go pistan izango dira, 10:30etatik 12:30tara. ||

HERNANI ZINEA

Mary Poppins, beste hiru aldiz

Berriro ere *El regreso de Mary Poppins* pelikula ikusi ahal izango da Biterin; gaur, 22:15etan, etzi, 19:30etan, eta astelehenean, 16:30etan; bihar ez da saiorik izango. ||

HERNANI UDALA

Astelehenera arte, alokairurako diru laguntzak

Hernaniko Udalak diru-laguntzak ematen ditu etxebizitzaren urtebeteko alokairua ordaintzeko, eta astelehenean bukatuko da eskaerak egiteko epea. HHZn egin behar dira eskaerak.

HERNANIN etxebizitza alokairuan hartzeko diru-laguntzen eskaera egiteko epea zabalik dago, urtarrilaren 7, datorren astelehenera arte.

Diru-laguntza hauek Hernaniko Udalak ematen ditu, urtebeteko alokairua ordaintzen laguntzeko; kasu honetan, 2018ko irailaren 1etik 2019ko abuztuaren 31ra artekoa.

Hainbat baldintza

Laguntzak eskatzeko hainbat baldintza bete behar dira.

Alokairuari dagokionez, alokairuak urtebeteko iraupena izan beharko du gutxienez; EAEko hiri-finken errentamendu-kontratuen erregistroan inskribatua egon behar du; eta gehienez, 650 euroko alokairu gastua izango du hilean.

Eskatzaileei dagokienez, gutxienez duela urtebetetik Hernanin erroldatuta dagoena izan beharko da, eta diru-sarrerak, urtean, ezingo dira izan 25.000 euro baino gehiagokoak, laguntzaren eskatzaileak bakarra den kasuetan, eta 39.000 euro baino gehiagokoak bi eskatzaile edo gehiago diren kasuetan.

Eskaerak, udaletxean

Eskaerak egiteko orriak Hernaniko udaletxeko Herritarren Harrera Zerbitzuan (HHZ) edo www.hernani.eus webgunean lortu daitezke, eta eskaerak ere HHZ zerbitzuan bertan egin behar dira, goizeko 08:00etatik 19:00ak arteko tartean. Azken eguna, datorren astelehena izango da. ||

ezkati

ileapaindegia

Ituregi, 4
Hernani
943 55 65 56
Hartu ordua

Samitek

Bulego makinaren salmenta eta mantentimendua

samitek@samitek.es
www.samitek.es

TOSHIBA

INFORMATIKA
SAIL BERRIA

943 11 77 44

Dokumentuen kudeaketa
Ez galdu paperak

Aitor Ruiz de Eguino

OPARI ARTISTIKOAK

ESKULTURA, PINTURA, ZERAMIKA

Santa Barbara 58, Hernani

www.aitorruizdeegino.com

685 76 82 45

AITAN-ETXE TABERNA

Larramendi, 15
943 55 00 46

ITXASPE

Arrandegia

Antziola 5

Tel.: 943 330 365
Mobila: 665 735 224
20120 Hernani

TAXIAK: 943 550093 | **UDALTAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **IJOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103
 / Egunez: **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** / Gaeuz: **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani)

■ GURASOS ELKARTEA

Hitzarturen Hondakin Plana Aldundiari aurkeztuko zaio gaur

Hernaniko Oronan aurkeztutakoa, Garbiñe Biurrun, Juanjo Alvarez, Esther Larrañaga eta Bernardo Atxagak babestutakoa aurkeztuko da, 12:00etan.

ABENDUAREN 29an Hernaniko Orona Fundazioan aurkeztu zen Hondakin Plan tekniko Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko, eta Gurasos elkarteak gaur helaraziko dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, eguerdiko 12:00etan.

Umeei protagonismoa eman nahi zaienez, familiek desfilea egingo dute Donostiako Elkano kaletik sartuta, dantzariekin, eta umeek sinatutako itxaropen mezua ere helaraziko diete ordezkarari politikoei.

«Gizartearekin elkarrizketa bidea zabaltzeko» eskaera Hitzartu parte-hartze prozesuaren bidez garatutako Hondakin Plan tekniko hau babestu

egin zuten Gurasos bideratutako Berme Batzordeko ordezkariak Oronan egindako aurkezpenean, eta, era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiari dei egin zioten, «gizartearekin elkarrizketa bidea zabaltzeko» hondakin gatazkaren inguruan. Batzorde horretako kide dira ekitaldian parte hartu zuten Garbiñe Biurrun epailea, Juan Jose Alvarez Zuzenbideko katedraduna, Bernardo Atxaga idazlea eta Esther Larrañaga Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburu ohia.

Batzordeko kide dira, baita ere, Pedro Ibarra EHUKo Zuzenbideko katedradun emeritua eta Ernesto Ganuza Ikerketa Zientifikoen Kontseilu

Gorenako titularra. «Denon artean, etorkizuneko, behin betikoa eta hondakin konutuarentzako bideragarria den irtenbide bat eraikitzea» aldarrikatu zuten.

Hondakinak, gordailuetan

Hain zuzen, Aldundiari emango dioten planean proposatzen da «aurrez bioegonkortutako udal hondakinak gordailu inertizatu bidez kudeatzea, zigitatutako eta isolatutako gelaxketan». Dagoeneko garatua dagoen teknika dela diote, eta «errastea baztertzen duena, Tratamendu Mekaniko-Biologikoko planta batekin». Horretarako, Zubietako lantegia proposatzen dute. ||

■ ASTIGARRAGA UDALA

Berritze lanak, irisgarritasuna hobetzeko

Kultur Etxe azpiko lorategia berritu, eta Kale Nagusiko 35etik bide berria egingo dira.

ASTIGARRAGAKO Kultur Etxeko lorategiaren behealdean obran martxan jartzea onartu zuen azken Plenoak. Udala Gobernu Taldeak aurkeztu zuen proposamena, bi helburuekin: «Anuska auzoko irisgarritasuna hobetzea, eta lorategia berritzea».

Udalak jakinarazi duenez, «Añarbek Kale Nagusiko 51 zenbakian ur-horniduran egingo duen berrikuntza» aprobetxatuko da lan hauek egiteko.

Bide eta lorategi berritua

Proposamenen bi lan egitea aurreikusi da. Batetik, Kale Nagusia 35etik hasita berdegune goiko hesira arte bide berri bat sortzea, lorategia diagonalean zaharkatutako duena. Eta bestetik, lorategiko beheko aldea berritzea, zati hori auzoan integratzeko. Honekin, «irisgarritasuna hobetzea» espero da; «bide irisgarria eta argia egingo da, eta atsedean elementuak jarriko dira. Era berean, Kale nagusia eta bide berriaren artean gedituko den espazioa hornituko da: aisialdi gunea 9-13 urte arteko umeentzat, altzari berriak, deskantsu gunea...».

Proiektua koordinatzeko «kanpoko arkitekto batekin ari da lanean Udala», eta berak proposatu zituen aldaketak. Proposamena Kontxa Etxeberria Fundazioko ordezkariari ere aurkeztu zaie, Kultur Etxeko lurren jabea delako, eta elkarlanerako prest azaldu dira. Bide batez, lorategiko beheko aldean Kontxaren Lorategia seinalea jarriko da.

Bizilagunei azalpenak

Egin behar diren tramiteekin bukatuta, auzoko bizilagunekin bilera informatiboa deituko duela jakinarazi du Udalak, obraren xehetasunen berri emateko. ||

■ ASTIGARRAGA AISIALDIA

Jolas Txiki gaur, azkenekoz

Asteazkeneko Haur Parkeak atek itxi baditu ere, oraindik badago jolaserako aukera, Astigarragan. Atzo bezala, gaur ere Jolas Txiki egingo da kultur etxean, 9 eta 12 urte arteko haurrentzako. Hainbat jolas izango dira aukeran, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:30etara: mahai-jolasak, ping-pong, futbolina, billarra... Doakoa da. ||



Jolas eta taller gehiago izango dituzte aukeran gaur ere, Astigarragan.

■ HERNANI PRESO ETA IHESLARIAK

Aurreneko ostiralarekin, bi kontzentrazio

«Urte berria hastera goaz, baina ostiralero dinamikarekin jarraitu beharrean gaude», azaldu dute Hernaniko preso eta iheslarien senide eta lagunek. Kontzentrazioa egingo da Zinkoenean, 20:00etan. LABek deituta ere, Zinkoenean egingo da bilkura, 12:00etan. ||

■ HERNANI-ASTIGARRAGA ORAIN PRESOAK

Bilboko manifestaziora, autobusak

Urtarrilaren 12an Bilbon euskal presoek eskubideen alde egingo den manifestaziora joateko autobusak jarriko dira Hernanin eta Astigarragan. Hernanin, 14:45etan aterako dira Atsegindegitik, eta txartelak salgai daude 10 euroan Garin, Txili eta Kitton. Astigarragan, Ikatzan eta Zipotzan daude izenemate zerrendak. ||

■ HERNANI UDAL LIBURUTEGIA

Azken eguna, zuhaitzaren lehiaketarako

Hernaniko musikariekin zerikusia duten argazkiekin osatu dute Gabonetako zuhaitza liburutegian, eta haien inguruko galderekin lehiaketa prestatu. Gaur da parte hartzeko azken eguna. Sariak izango dira. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

IÑAKI BARRENETXEA LASARTE

"MARQUES"
Herenegun hil zen, 72 urte zituela
- Goian Bego -
Hegoak ebaki bagenizkizun, ez zinen txoria izango eta guk txoria maite genuen.

BARRENETXEA-LASARTE SENDIA



Hernanin, 2019ko urtarrilaren 4an

IÑAKI BARRENETXEA LASARTE

Ez zaitugu ahaztuko.

ZURE KOADRILA



Hernanin, 2019ko urtarrilaren 4an

IÑAKI BARRENETXEA LASARTE

"MARQUES"
Herenegun hil zen, 72 urte zituela
Orain arte bezala gero ere elkartuko gaituk.

1967KO KINTOAK




Hernanin, 2019ko urtarrilaren 4an

IÑAKI BARRENETXEA LASARTE

Beti gogoan izango zaitugu.

ZURE LAGUNAK



Hernanin, 2019ko urtarrilaren 4an

IRAGARKI MERKEAK

Esperientziadun andreak lan egingo luke adinekoak zaindu edota lagun egiten eta garbitasunean. Orduetgia: 11:30-17:00. Deitu: 654 122 548
 Hernaniko okindegi batean lan egiteko dependent@ behar da. Ezinbestekoa euskaraz jakitea eta gidabaimena edukitzea. Deitu 609 543 900 (10:00etatik 14:00etara)
 Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)